



Lesakako Inautik

Xarelan

76

“LESAKAKO

IÑAUTIK”

Transkripzioaren egilea :

Rafael SANJURJO RETEGI

Sortzez, lesakarra
bizilekua : lizarra / nafarroa

adina.....39 urte
ogibidea....irakasle

Kaixo -“hola” ere erraten dugu auniztan-, arratsalde on edo egun on edota zergatik ez gabon !, eta ongi etorrik kontatu ber dugun guziya entzunen duzuen guziekeri. Alaba dut nere atzetikan aritu zaidana behin ta berriz gure herriko euskalkin pasadizun bat kontatu ber nula erranez, gure euskal kulturakin ikusterik zun zerbait alaia (alegia). Eta lesakarra izanda inautitaz dakitenaz solastea iduitu zait hoben hobena.

Erne egon gauza polittak aittuko ttuzue eta !

LES AKAKO IÑAUTIK

Iñautitan aniztan egin zandu dugu besta hagitz politta. Nere herriya arrunt ona da holako gauztan : batzutan Sanferminak, bertzetan ferik direla, dantzak e preparatzen fiñak eta Iñautikotan espezialak.

Lesaka -bortziritako herritako bat- arras adittua da Iñautitako zakuzarrangatik. Hok Hausterre astezken antzineko igandin atetzen dira karrikatan barna. Zaku puskak itten dira hankitan, besutan eta gorputz erdiyan paratuz, eta gainigo burua tapatuz oiyal bat jartzen dute sonbrerua re eramanez. Hokintzat hoben hobena zaten da aurreko eguntan biltzen den belarra bustiya ez egotia hoekigo eramiteko zaku barrenin. Hortako ber zaten da neguko egun hoik eguldi onekuk izatia, zaila zaten dana bertzaldetik.

Hogeitamarren bat gaztakin betetzen da fila osua eta eskutartin pizontzi bat eramatten dute, hola iskintan dagon pertsona guztikeri astinduk emanaz. Hoken ondutik andrik indako talde bat ere atetzen da yendiri beldurra ematteko -mairuk dira- eta lengotako kostunbrik direla erraten dute gure zarrek : espiritu gaixtuk uxatzeko ta omen dira.

Mairukin ttikinak batzutan izitzen dira eta lasterka abitzen dira eken itxin sartu arte, beldurra pasatu bittartin binipin.

Aistin erran duten bezala Lesakan gero ta gottigo duaye Iñautitako besta girua, azkenko urtitan askozez handiyagoa izan baita lekutu den yende kantidadia. Aunitz biltzen da plaza zarran zakuzarren zakuk haur ttikik nola xetzen ttuzten ikusteko. Ikusgarri zaten da bukaera hau, zakuz eta belarrez bete itten da plaza guziya eta haurrak eta gaztik yostetan hasitzen dira denekeri botaz gotti eta betti belar eta zaku puska hoik.

Honeri segida ematteko ondoko egunin besta gehigokin seitzen da : herriyin mozorruk, karrozak eta holakukin ibiltzen dira gazti gehinak denekeri irrik eta umore ona eraginez. Biño, ezin dira aipatu gabe utzi baserritan barna ateitzen diren koadrilak kordionistekin eta, dantza ederrak botatzeko baserritako etxeakoandekin eta neskatoekin ere. Hoik xingarra eta arraultze bila ibiltzen dira, diru eskean ere, gero bazkari goxua egin ahal izateko. Erranera famatua bada Lesakako baserritan aitzen dena : “arraultze arraultze bat ez bada bertze”, noski, saskiya ongi bete arte.

Hau izan tteke gaintikan emanda Iñauterin gainin esplikatu dattekena.

Beraz, eskatu zunari erantzuna eman ez eta in ber nugun lana ongi bete dugulakun, hobekio ateri daila goainik lan hontan ageri nahi

den asmoa : Lesakako iñautitaz aunitz gehigo jakittia, hortako inalak in baittugu.

Eskerrik asko eta izan ongi.

LAN HONEK ERAGINDAKO IKASITAKOAK

Lan hau egiterakoan deigarri izan zaidan gauza nabarmenik egon da inolako zalantzarik gabe. Batetik, eguneroko euskara batuan hitzegiten ohitua bainago, Lizarran honela hitzegiten delako bertako euskalkirik ez dago eta. Bestetik, Lesakara maiz joan izan ohi naiz, baina aita hangoa izanik eta bertako euskalkia ezagutzen dudan arren -neurri batetan behinik behin-, lan hau egiteak irakatsi didana bi hizkera mota hauen arteko aldeak ezberdintzea izan da.

Horren adibide :

Erabiltzen den doinuaz gain, idazkerari dagozkionak, honako hauek bezelaxe :

*Fonemak :

-“tt” : *ttuzue* - *politta* - *adittua* - *eramatten* - *trikinak* - *bittartin* ...

-“y” : *herriya* - *erdiyan* - *yendiri* - *duaye* ...

-“tz” : *bertzetan*

-“rr” : *erraten*

*Laburtzapenak edo kontrakzioak :

-erakusleetan... *hok* (hauek) / *hokintzat* (hauentzat) / *hoken* (hauen) /
hoik (horiek) / *eken* (haien) ...

-aditzetan... *izan tteke* (izan daiteke) / *in ber mugun* (egin behar
genuen) / *ateri daila* (ater dadila) ...

-adberbioa... *goainik* (oraindik) / *e* (ere) / *re* (ere).

-izenak.....*inalak* (eginahalak) / *itxin* (etxean) / *egunin*
(egunean).

*Juntagailuak :

-*alaia* (alegia) / *biño* (baino) / *binipin* (behinik - behin) / *baittugu*
(baitugu : bait dugu).

*Hiztegia :

-*auniztan* (askotan) / *zarrek* (zaharrek) / *xetzen* (xehetzen) ...